


telebista ♦ irratia

Pasaiaiko
polizoiak

ETB1 • 22:30etan

Sorginen Laratza magazinean Pasaian dauden polizoiak buruz ariko dira gaur, beste gauza batzuen artean. Xabier Euzkitzek aurkezten du saioa.



gaurko filmak *Ane Muñoz*

■ THE BIG LEBOWSKY.

Telebista pribatuko seinalea dekodetu dezakezuenei soilik zuzenduta dagoenez, ez naiz luzatuko Coen anaia interesgarrien azken abentura eder hau iruzkintzean. *Barton Fink* eta *Fargo* harribitxiak egileek filmatua da, eta bi lan zoragarriak miresleek oso gustura ikusiko duzuela ziur naiz. Turturro eta Goodman jatorrak bildu dituzte kameraren parean, *Barton Fink*-en bezala, eta nahikoa rol bereziak eskaini dizkiete *Bridges* protagonista-aren alboan antzezteko. Bestetik, ez zaio falta elementu fantastikorik film kurioso honi.

■ RIFI EN AMSTERDAM.

Jules Dassinek arrakasta handiz sortutako sail baten atal honek ez du zerikusirik hasierako lanekin. Italiak eta Espainiak elkarrekin ekoitzia da. Agente sekretu baldarrak, porrot egindako lapurretak, bahitutako zientzialari bat eta bi emakume lirain biltzen ditu filmak, azpijenerora ez berririk ekarri gabe. Gainera, zaharkitu samarra geratu da.

■ LA LEY DE LA MAFIA.

Robert Ellis Miller zinemagileak zuzenean telebistarako egin zuen zinta arrunt hau. Biolentziaz jositako uneak dira nagusi, eta mafiaren munduan murgiltzen diren hainbat pertsonaiaren gorabehera ugari erakusten ditu filmak, izenburuarekin erraz asma dezakezuen bezala. Aktoreek ere ez dute lan nabarmenik osatu, eta inor entretenitzeko tan, mafiarezaleen kontuak atsegin dituzuenak izango zartete.

■ MUERTE SUBITA.

Ezin dut esan Peter Hyamsen lanen artean nabarmentzekoa denik, Jean-Claude Van Damme gihartsuaren luzimen-



Marcello Mastroianni da *Buenas noches, señoras y señores* filmeko aktoreetako bat.

Italiako maisuak, telesaio txarrei barre

■ BUENAS NOCHES, SEÑORAS Y SEÑORES. Italiar komedia korapilatsu hau, Mastroianni handiak protagonizatua, aitzindaria da telesaio txar eta merkeei kritika egiten dieten film multzo zabalean. Oso aktore ospetsuek antzeztua dago, Mastroianniz gain. Hark Vitorio Gassman, Ugo Tognazzi eta Nino Manfredi ahaztezinak ditu alboan, eta txukun dabilta, gainera. Oso pertsonaia dibertigarriak jokatzen dituzte. Istorioa zenbait ataletan banatuta dago, eta guzti-guztiekin gizarte italiarrari barre egiten diote, telebista saio moten azterketa bihurri bat osatuz. Italiako zinemagintzan nahikoa garrantzitsuak izan diren zenbait maisuk zuzendu zuten; Ettore Scola, Luigi Comencini eta Mario Monicelli, adibidez, atal bana filmatu zuten. Oso lan arin eta entretenigarria da.

Le testament du Dr. Mabuse ♦♦♦	Arma letal ♦♦
1962, Werner Klingler, 75 m. 09:00 C+ (f)	1987, Richard Donner, 105 m. 22:00 T5
Duelo en el Amazonas ♦♦	Una espía en mi alcoba ♦♦
1990, Steve Kloves, 110 m. 11:00 La2	1990, Gene Quintano, 89 m. 23:50 ETB2
Desaparición en la sombra ♦♦	Buenas noches señoras y... ♦♦♦
1997, Paul Schneider, 90 m. 16:15 T5	1976, Age, Benvenuti..., 106 m. 01:55 La2
The Big Lebowski ♦♦♦♦	Rifi en Amsterdam ♦♦
1998, Joel Coen, 110 m. 21:00 C+ (f)	1967, Terence Hathaway, 87 m. 03:45 La2
Muerte súbita ♦♦	La ley de la mafia ♦♦
1995, Peter Hyams, 106 m. 22:00 TVE1	1992, Robert Ellis Miller, 89 m. 04:40 T5
Han visto a mi hijo ♦♦	Eliminar a McCall ♦♦
1996, Paul Schneider, 88 m. 22:00 ETB2	1988, Tony Zaridast 05:35 A3
♦ TXARRA ♦♦ ESKASA ♦♦♦ BALEKOA ♦♦♦♦ ONA ♦♦♦♦♦ BIKAINA	

du hutserako sortutako film kaskarra baita, topikoz gainezka sortutako akziozko abentura komertzial pobrea, alegia.

Efektu berezi garestiak ere ez dira nahikoak zinta baztergarrari honi kalitate pittin bat behintzat emateko.

ETB 1

- 07:10: **Superbat.** 'Pottokiak', 'Ninja dortokak', 'Tom eta Jerryren ikuskizuna', 'Candy Candy', 'Kazetari ausartak'.
- 09:10: **Euskal Herriak.**
- 09:40: **Hitzaro.**
- 10:10: **Sorginen laratza.**
- 11:30: **Ikusgela.**
- 12:25: **Elkartasunaren bideak.**
- 12:55: **Iparraldearen orena.**
- 13:05: **Pantera arrosa.**
- 13:30: **Gaur egun.** Albistegia.
- 14:10: **Bruno Gaztea.** Marrazki bizidunak.
- 14:30: **Tex averyren marrazki bizidunak.** Marrazki bizidunak.
- 14:40: **Porky txerrixoa.** Marrazki bizidunak.
- 14:50: **Bizirik irautea arrezifean.** Dokumentala.
- 15:15: **Goenkale.** Telesaila.
- 16:00: **Egin kontu.** Magazina.
- 17:35: **Bidaide.** Dokumentala.
- 19:05: **Borroka taldea.**
- 19:25: **KTM!**
- 20:30: **Gaur egun.**
- 21:10: **Bertatik bertara.**
- 21:45: **Goenkale.**
- 22:30: **Sorginen laratza.**
- 00:00: **Bonjour tubabu.** Dokumentala.
- 00:30: **Bakarrik.**
- 02:00: **Egin kontu.**
- 03:30: **Ibilbideak.** Dokumentala.
- 04:00: **Benta berri.**
- 04:25: **Bidaia txundigarriak.** Dokumentala.
- 04:55: **Ikusgela.**
- 05:50: **Amama sukaldari.**
- 06:10: **Urak handi.**

ETB 2

- 07:50: **Del país de los vascos.**
- 08:25: **Oficios tradicionales.**
- 08:55: **Empresa vasca.**
- 09:30: **El Punto...** Gonbidatua: Luis Maria Valle Jaurlaritzako Lan zuzendaria.
- 10:00: **Forum.** Gonbidatua: Nekane Agirre Jaurlaritzako Hezkuntza saileko Pedagogia Berritzeko zuzendaria.
- 10:30: **Entre 2 fuegos.**
- 11:00: **Esta es mi gente.**
- 12:10: **El show de Jeff Foxworthy.**
- 12:35: **Patrulla de rescate.**
- 13:30: **Ned y Stacey.**
- 13:55: **La niñera.**
- 14:28: **Teleberri.**
- 15:45: **Lo que faltaba.**
- 17:50: **Esta es mi gente.**
- 19:30: **Pacific Blue.**
- 20:25: **Da la talla en la pantalla.**
- 20:58: **Teleberri.**
- 22:00: **Exclusivas ETB.**
- Han visto a mi hijo.**
Zuzendaria: Paul Schneider. Aktoreak: Lisa Hartman, William Russ, Jameson Parker. 1996.
- 23:50: **Zinema.**
- Una espía en mi alcoba.**
Zuzendaria: Gene Quintano. Aktoreak: Kim Cattrall, Robert Hays. 1990.
- 01:35: **Testigo silencioso.**
- 02:25: **Lo que faltaba.**
- 04:20: **Forum.**
- 04:50: **Amaiera.**



irratia ♦

Bizkaia Irratia. Jabi Onaindik eta Dorleta Alberdik *Aupa Bizkaia* saioa aurkeztuko dute. Bertan, goizeko 08:40an, Bakearen aldeko Koordinakundeko kide Xabier Hoyori elkarrizketa egingo diote. *Jirabiran* magazinaren barruan, 11:15etan, Bernardo Mandaluniz sendagilearekin hitz egingo dute. 12:05ean, Labayru ikastegiko Akaitze Kamiruagak ezkontzako eta heriotzako erri-toei buruz hitz egingo du. 14:05ean, Kepa Uriartek eta Libe Agirrek kirol irratsaioa

egingo dute. Arratsaldean, berriz, 18:30etatik aurrera, *Idatz eta mintz* saioa eskainiko dute *Bilintzi Balantza* magazinaren barruan. Tarte hori Labayruk, Jabi Onaindik eta Miren Ezkurak aurkeztzen dute.

Bilbo Hiria Irratia. Elkarrizketa ugari izango dira gaur goizean Bilbo Hiria irratiko *Ibaizabal* izeneko magazinean. Besteak beste, Asisko Urmenetarekin hitz egingo dute, eta baita Euskal Herriko Kontsumi-

tzaileen Elkarteko kide Joseba Zinkunegirekin ere. Bazkalostean, arratsaldeko 16:00etan, Anje Duhalde aurkeztzen duen *Nor da nor* magazina entzuteko aukera izango da. Ondoren, 17:00etatik 20:00etara, *Ziutateaz* magazinaren tarte izango da. Bertan, Agustin Urzelaiarekin antzerkiari buruz hitz egingo dute, Jon Iñaki Artetxe komikiari buruz mintzatuko da, eta kontseiluko kide Jone Dorronsorerekin ere hitz egingo dute.